

## **“AMURRIOKO HIRIBILDUA 2019” XXXIX. ARGAZKI-LEHIAKETA**

**PARTE HARTZEA:** Nahi duten artista guztiek har dezakete parte, baldin eta baldintza hauek onartzen daituzte.

**GAIA:** bi modalitate:

- 1.- Gai libreko hiru argazkiren bilduma.
- 2.- Amurrio eta giza paisaiari buruzko hiru argazkiren bilduma.

**AMURRIORI BURUZKO ARGAZKIREN BILDUMAREN HELBURUA:** Lehiaketarekin, argazki bidezko irudien bitartez, Amurrioko jendartearen izaera aberatsa eta anitza islatzea da helburua.

**LANAK:** Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi bilduma aurkeztu ahal izango ditu modalitate bakoitzean, argitaragabeak. Lehiakide bakoitzak sari bakarra jaso ahal izango du. Epaimahaiak bildumen koherentzia kontutan hartuko du. Edozein teknika edo prozedura onartzen da: digitala nahiz laborategikoa, zuri-beltzean edo koloretan.

Argazki proposamen bakoitza jpg formatua 72 ppi-tan. Beharbada lana aukeratua izango denez, oinarri hauetan zehazten diren inpresiorako bereizmen neurri egokia duen kopia bat izatea partehartzailearen ardurua izango da.

**LANAK BIDALTZEA:** Lehiaketan izen emateko formularioa [www.amurrio.org/concursofotografico](http://www.amurrio.org/concursofotografico) helbidean duzue.

**JASOTZEKO EPEA:** Lanak onartzeko epea 2019ko maiatzaren 31etik ekainaren 14era izango da. Biak barne.

**LEHENENGO AUKERAKETA:** Epaimahaiak euskarri informatikoetan jasotako lanen artean aukeraketa bat egingo du. “La Casona”n udal erakustaretoan erakusketa bat prestatzeko antolatzaileek aukeratutako argazkien egileei eskatuko dizkiete argazkiak paperean. Sorta honetatik saridunak aterako dira.

**AUKERATUTAKO ARGAZKIAK:** Egileak, hautatua izaten badira, antolatzaileei lanak bidali behar dizkiete jarraian aipatzen diren baldintzetan: 40 X 50 zm-ko neurria eta 2 mm-ko lodiera duen “passepartout” zurrunaren gainean ezarria eta formatu bertikalean jarria. Argazkiaren formato eta neurria librea dira, baina ezin dira “passepartout” baino handiagoa izan.

Aukeratutako lanak, Gasturik gabe eta behar den bezala bildua bidali behar dira. Paketearen kanpoaldean lanaren goiburua baino ez da azalduko, inolako datu pertsonalik gabe. Lanaren goiburu berak azaldu beharko du beste gutun-azal baten kanpoaldean. Bigarren gutun-azal honetan lehiakidearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea sartu beharko dira, lanen zerrendarekin eta bildumaren goiburuarekin batera. Bai paketea, bai gutun-azalean jarri beharko da “*Amurrioko hiribildua argazki-lehiaketarako*” eta modalitatea ere adieraziko da: “*Gai libre*” edo “*Amurrio*” eta helbide honetara igorriko dira: Kultur Etxea, Landako kalea 8, 01470 Amurrio, Araba.

Parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du lanak igortzean hauek jasan ditzaketen kalteen edo galtzearen ardura.

**EPAIMAHAI:** Erakusketarako argazkiak aukeratzeaz eta sariak emateaz arduratuko den epaimahaia argazki munduko hiru pertsona adituk osatuko dute. Erabakia aldaezina izango da.

**SARIAK:**

- 1. saria gai libreko 3 argazkiren bildumarentzat: 400 € eta garaikurra
- 2. saria gai libreko 3 argazkiren bildumarentzat: 200 € eta garaikurra
- 1. saria Amurriori buruzko 3 argazkiren bildumarentzat: 800 € eta garaikurra
- 2. saria Amurriori buruzko 3 argazkiren bildumarentzat: 200 € eta garaikurra

Abuztuaren 1eko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartu duen 40/2014 Foru Dekretuak dioenez, sariek dagokien atxikipena daramate, pertsona fisiko batek jasotzen dituen eta 300€ baino gehiagoko errententziko oinarria duten sariek, PFEZaren 19%ko errententziko bat izango dute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

Saritutako lanak goiko definizio euskarri informatikoan eta paperean eman beharko zaizkie antolatzaileei.

Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 18.artikuluak ebatzitakoa aintzat hartuz, irabazleen zerrrenda udal web orrialdean argitaratuko da.

**SARI BANAKETA ETA ERAKUSKETA:** Sari banaketa 2019ko ekainaren 28an izango da, 20:00etan, “La Casona” erakusketa aretoan. Egun horretan bertan inauguratuko da uztailearen 19ra arte zabalik izango den erakusketa.

**LANAK MANTENTZEA ETA BUELSTATZEA:** Sarituak izan ez diren argazkiak egileak berak edo baimendutako beste edozeinek jaso ahal izango ditu Amurrioko Kultur Etxean 2019ko irailaren 27a bitartean. Epe horretan jaso ez diren argazkiak Amurrioko udalaren esku geratuko dira. Lanak korreoz eskuratu nahi dituenak halaxe jakinarazi beharko du eta bere gain hartuko ditu itzultzeko gastuak.

Nahiz eta lanak kontu osoz erabiliko diren, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko, eurenak ez diren arrazoiengatik, argazkiren batek kalteak izaten baditu.

**ESKUBIDEAK:** Lehiakidea izango da igorritako argazkiaren egile eskubideen titular bakarra eta bera arduratuko da hirugarren batek argazkiari dagozkion eskubideak ez eskatzeaz.

Hirugarren batek argazkiaren eskubideak edota argazkia ondo erabili ez izanaren eskubideak eskatzen baditu, ardura egilearena soilik izango da. Ondorioz, Udalak ez du izango inolako erantzukizunik.

Lehiaketa honetan parte hartzeak saritutako argazkien ustiaketa Amurrioko Udalaren esku uztea dakar. Hala ere, Udalaren eskubide hau egileek aukeztutako lanen gainean dituzten ustiaketa eskubideekin bateragarria da, eskubide horiek egileenak izaten jarraitzen baitute.

**AZKEN ARAUAK:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.

Aurreikusi gabekorik izanez gero, epaimahaiak hartuko du erabakia. Epaimahaiak edozein sari eman gabe uztea erabaki dezake.